

XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6270

AGINDUA, 2011ko abenduaren 5koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2012. urtean ezar ditzaketen tarifak arautzen dituena.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuan (martxoaren 16ko 48/2004 Dekretuaren bidez aldatu zen), ibilgailu automobilen segurtasunaren arloko aztertze-, izapidetze- eta kudeatze-eginkizunak zehaztu dira. Ibilgailuen azterketa teknikorako zerbitzua duten entitate emakidadunei izenda dakizkieke eginkizunok.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikuluan xedatzen denez, dekretu hori garatzeko xedapenetan aurreikusitakoak izango dira azterketa teknikoaren zerbitzuengatik ezarriko diren tarifak, dekretu beraren azken xedapenen arteko lehenengoan xedatutakoari jarraikiz.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretua indarrean hasi ostean, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko uztailaren 19ko Aginduak arau-testu berean batu zituen Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren arloan indarrean zeuden tarifa guztiak (2000-09-14ko EHAA).

Bestalde, tarifak Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko abenduaren 3ko Aginduaren bidez eguneratu ziren azken aldiz. Izan ere, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek alor horretan 2011. urtean ezar zitzaketen tarifak arautu ziren agindu horren bidez.

Horrenbestez, apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoari jarraiki, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek, aldizka egin beharreko azterketak egiten dituztenean, ezar ditzaketen tarifak Agindu honetako I. eranskinean jasotakoak dira. Eta ziklomotorrek azterketa teknikoak pasatu behar dituztenez gero, I. eranskineko 1. kategoriari dagokion tarifa aplikatuko zaie.

2. artikulua.— Agindu honen II. eranskinean daude jasota Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek, ibilgailuetako erreformak arautu zirenetik egin beharreko azterketa teknikoak egiten dituztenean, ezar ditzaketen tarifak.

Ibilgailuetako erreformak hiru motatan sailkatu dira, ezarri beharreko tarifa hobeto zehaztu ahal izateko: 1. mota, 2. mota eta 3. mota, aurkeztu beharreko dokumentazioaren eta egin beharreko azterketaren arabera.

1. mota:

1.1.— Unitate eragile bat edo batzuk eranstea ibilgailuaren trakziorako.

1.2.— Unitate eragilea lekuz aldatzea.

1.3.– Ardatza ordezte bestelako ezaugarriak dituen beste batekin, edo ardatzaren ezaugarriak aldatzea.

1.4.– Ardatzen arteko tartea aldatzea.

1.5.– Ardatz kopurua handitzea edo murriztea.

1.6.– Gurpil kopurua aldatzea (L kategoria).

1.7.– Esekidura-sistemaren edo horren osagai elastiko batzuen ezaugarriak aldatzea.

1.8.– Ibilgailuko kargarako tokiaren egiturari eragiten dioten elementu finkoak ezartzea.

1.9.– Anbulantziak, hileta-ibilgailuak, blindatuak, autokarabanak, etxebizitzak.

1.10.– Ibilgailu baten karrozeria ordezte edo aldatzea.

1.11.– Motozikleta bati sidekar bat egokitzea.

1.12.– Aipatu gabeko gainerako erreformak, aurrekoetan sar daitezkeenak.

2. mota:

2.1.– Erregaia sartzeko sistemaren ezaugarriak aldatzea edo elementuak ordezte.

2.2.– Erregaia elikatze sistemaren ezaugarriak aldatzea edo elementuak ordezte.

2.3.– Unitate eragilearen ordeze, bestelako ezaugarriak dituen beste bat jartzea.

2.4.– Ihes-sistemaren ezaugarriak aldatzea edo ordezte: antolamendua, bolumen osoa, isilgailuak, katalizatzailea, irteera-tartea.

2.5.– Erregai-deposituen kokapena aldatzea, erregai-deposituak ordezte edo erregai-deposituen kopurua handitu edo murriztea.

2.6.– Gehieneko potentzia aldaraz dezaketen sistemak edo sistemen programazioa aldatzea.

2.7.– Transmisioaren konexio- edo deskonexio-elementuaren ezaugarriak aldatzea edo elementu horren ordeze elementu desberdin bat jartzea.

2.8.– Gurpiletako elementuak aldatu edo ordezte, edo gurpil-bereizgailuak ezartzea, bidezabalera aldatzeko.

2.9.– Pneumatikoak ordezte, baliokideak ez diren beste batzuekin.

2.10.– Pneumatikoen dimentsioak, karga-indizea eta/edo abiadura-indizea aldatzea (L).

2.11.– Hagun zein gurpiletako elementuak aldatzea edo ordezte, edo gurpil-bereizgailuak ezartzea (L).

2.12.– Direkzio-sistema aldatzea.

2.13.– Bolantea lekualdatzea edo eranstea.

2.14.– Balazta-sistemaren edo horren osagaietako baten ezaugarriak aldatzea.

2.15.– Eserleku kopurua handitzea.

2.16.– Eserlekuen ordeze zutikako plazak jartzea, edo zutikako plazen kopurua aldatzea.

- 2.17.– Gurpil-aulkiak ezartzeko tokia egokitzea.
- 2.18.– Eserlekua bestelako eserleku batekin ordeztzea.
- 2.19.– Segurtasun-uhak bat aldatzea ainguraketa-puntu mota, kopurua edo posizioa desberdina duen beste batekin.
- 2.20.– Segurtasun-uhak ezartzea.
- 2.21.– Ekipaje-eremuan edo bidaiarientzako tokian, ibilgailuko bidaiari-lekuaren aurrealdeaz aparteko espazioan, elementuak aldatu edo ezartzea.
- 2.22.– Ibilgailuko kargarako edo ekipajerako tokiaren egiturari eragiten ez dioten elementu finkoak ezartzea.
- 2.23.– Iraulketaren aurkako barne-segurtasuneko arkua ezartzea.
- 2.24.– Arrapalak, goragailuak, garabiak, plataformak, heldulekuak, eskailera-mailak edo beste era bateko sistemak.
- 2.25.– Atzeko eta/edo aurreko hegalararen luzera aldarazten duten aldaketak.
- 2.26.– Ibilgailu baten karrozeriari eragiten dioten aldaketak.
- 2.27.– Ibilgailuaren kanpoaldeko elementuak aldatzea edo txertatzea.
- 2.28.– Lanerako makina osagarriak ezartzea.
- 2.29.– Iraulketaren aurkako babes-egitura bat ezartzea (edo ordeztzea).
- 2.30.– Objektu-erorketatik babesteko egitura bat ezartzea edo ordeztzea (FOPS).
- 2.31.– Garabiak ezartzea.
- 2.32.– Plataforma jasotzaileak, sabaizuloak edo arrapalak txertatzea.
- 2.33.– Akoplatzeko gailuak ezartzea edo aldatzea M eta N kategorietako ibilgailuetan.
- 2.34.– Akoplatzeko gailuak ezartzea eta aldatzea O kategoriako ibilgailuetan.
- 2.35.– Akoplatzeko gailuak ezartzea edo aldatzea L, Quad eta UTV kategorietako ibilgailuetan.
- 2.36.– Akoplatzeko gailuak ezartzea edo aldatzea nekazaritza-ibilgailuetan.
- 2.37.– Akoplatzeko gailuak ezartzea edo aldatzea obra eta/edo zerbitzuetako ibilgailuetan.
- 2.38.– Aipatu gabeko gainerako erreformak, aurrekoetan sar daitezkeenak.
3. mota:
- 3.1.– Matrikula-plakaren kokalekua aldatzea.
- 3.2.– Azeleraziorako agintearen eragintza-sistema aldatzea edo posizioz aldatzea, baita ordeztzea edo eranstea ere.
- 3.3.– Unitate eragilea abiarazteko eragintza-sistema aldatzea.
- 3.4.– Enbragearen eragintza-sistema aldatzea, eranstea edo posizioz aldatzea, baita ordeztzea edo eranstea ere.

- 3.5.– Abiadura-kaxa aldatzea, edo horren ordezt bestelako kaxa bat jartzea.
- 3.6.– Transmisio-elementuak aldatzea edo horien ordezt bestelako elementu batzuk jartzea, abiadura-kaxaren irteeratik gurpiletaraino.
- 3.7.– Trakzio-sistema aldatzea, ardatz eragileen kopurua aldatuz.
- 3.8.– Abiadurak hautatzeko sistema aldatzea edo bestelako ezaugarriak dituen batekin ordezttea.
- 3.9.– Bolantea ordezttea.
- 3.10.– Bolantean laguntzak ezartzea.
- 3.11.– Aginte mota eta modua aldatzea edo sistema aurreratuak txertatzea.
- 3.12.– Eskulekua ordezttea.
- 3.13.– Energia zinetikoa xurgatzeko sistema osagarriak txertatzea.
- 3.14.– Balaztaren eragintza-aginteak aldatzea, eranstea edo posizioz aldatzea, baita ordezttea edo eranstea ere.
- 3.15.– Atoian eramandako ibilgailurako balazta-aginte edo balazta-akoplamendu bat ezartzea.
- 3.16.– Ibilgailuko bidaiari-lekuaren aurrealdean elementu iraunkorrak ezartzea.
- 3.17.– Eserlekuen artean bereizteko itxiturak ezartzea.
- 3.18.– Klase-aldaketa M2 eta M3 ibilgailuetan.
- 3.19.– Ekipajeetarako soto edo konpartimentuen bolumena aldatzea.
- 3.20.– Aginte, lekuko eta adierazgailuak aldatzea edo txertatzea.
- 3.21.– Helduleku bat aldatzea edo txertatzea.
- 3.22.– Abiadura-neurgailua ordezttea.
- 3.23.– Lapurreten aurkako gailua aldatzea, ordezttea edo txertatzea.
- 3.24.– Astoa aldatu edo eranstea.
- 3.25.– Turuta ordezttea edo txertatzea.
- 3.26.– Argiztapen eta seinaleztapenerako edozein elementu, gailu, sistema, osagai edo unitate tekniko independente eranstea.
- 3.27.– Argiztapeneko eta seinaleztapeneko edozein elementuren, gailuren, sistemaren, osagairen edo unitate tekniko independenteren kokapena edo ezaugarriak aldatu edo ordezttea.
- 3.28.– IAT txarteleko daturen bat aldatzea, horrekin loturiko beste eraldaketarik ez dagoenean.
- 3.29.– Sailkapen-aldaketa.
- 3.30.– Gehieneko masa baimenduen aldaketak.
- 3.31.– Ibilgailuko gehieneko masa tekniko onargarrietako edozein aldatzea.
- 3.32.– Gehieneko abiadura aldatzea.

3.33.— IAT txarteleko akatsak zuzentzea.

3.34.— Ibilgailuaren jatorrizko egoerara leheneratzea.

3.35.— Aipatu gabeko gainerako erreformak, aurrekoetan sar daitezkeenak.

Edozelan ere, multzo funtzional bat edo «kit» bat ipintzen bazaio ibilgailuari, eta hori ipintzeak aipatu erreformaren bat egin beharra badakar, erreforma horri dagokion tarifa bera aplikatuko zaio dena delako «kit» hori erregularizatzeko.

3. artikulua.— Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek 1. motako erreforma garrantzitsuengatik (proiektu eta ibilgailu-pisatzerik gabe) aplikatzen diren tarifak —2. artikulua— aplikatuko dituzte honako kasuetan: Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartel bikoitza ematen denean, baita matrikula aldatzen, ibilgailua historiko gisa katalogatzen, istripu bereziki larriak dituzten ibilgailuen ohiz kanpoko azterketa egiten eta bajan zegoen ibilgailua gaitzen denean ere.

Azterketarik egin behar ez den kasuetan edo ibilgailua identifikatu baino egin behar ez denean, izapidetzeko tarifa soilik aplikatuko da.

4. artikulua.— III. eranskinean daude jasota Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek aplikatu beharko dituzten tarifak, honako hauek egiten dituztenean: batetik, Europako Batasunetik, Europako Esparru Ekonomikotik edo beste herrialde batzuetatik datozen ibilgailuak —matrikulatuak edo ez— matrikulatu aurreko izapideak eta azterketak egiterakoan; eta bestetik, osatutako ibilgailuei dagozkienak egiterakoan.

5. artikulua.— III. eranskinean daude jasota Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek aplikatu beharko dituzten tarifak, honako hauek egiten dituztenean: salgai arriskutsu eta galkorrak garraiatzeko ziurtagirien luzapenak egiteko azterketak, ibilgailuak pisatzekoak, bigarren faseko jatorrizko azterketak, aldiro-aldirokoak, taximetroak konpondu edo taximetroetan aldaketak egin osteko azterketak, adin txikikoen eta eskola garraioaren azterketa berezia, eta salaketa edo borondatezko eskabidea dela-eta egindako azterketa partziala.

6. artikulua.— Agindu honetako 1., 2., 3., 4. eta 5. artikuluetan ezarritako tarifek bigarren azterketa ere barne hartzen dute, bigarren faseko jatorrizko azterketak, aldizkakoak eta taximetroak aldatu edo taximetroetan aldaketak egin osteko azterketak salbu. Lehenengo azterketan aurkitutako akatsak konpondutakoan egiten da bigarrena. Lehenengo azterketa egiten denetik hilabeteko epean egin beharko da bigarrena.

Tarifek ez dute bigarren azterketa barne hartzen denuntziagatiko azterketa kasuetan edo borondatez eskatzean.

7. artikulua.— Ibilgailuaren titularrak azterketa ITV-IAT aztertokitik kanpo egiteko eskatzen duenean, eta hori posible denean, entitate emakidadunak joan-etorri gastuak eta gutxieneko fakturazioaren gastuak kobratu ahal izango ditu, Agindu honen III. eranskinean adierazitakoaren arabera. Fakturak azterketa egitera joateko erabilitako ibilgailuaren eta mugitu diren ikuskatzaileen gastuak jasoko ditu, eta emakidagune bakoitzaren barruan hurbilen dagoen ITV-IAT aztertokitik aztertu beharreko ibilgailua dagoen tokiraino fakturatuko da. Azterketa estazio mugikorren barruko ikuskaritza programazioaren barrukoa denean, ez da joan-etorria fakturatuko.

8. artikulua.— Agindu honetako tarifen eguneratzea urtero egingo da urriko urtetik urterako KPlaren aldaketa aplikatuz. Eguneratutako tarifak hurrengo urteko urtarilaren 1etik aurrera aplikatuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2012ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabetu egiten da Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek alor horretan 2011n ezar ditzaketen tarifak arautzen dituen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko abenduaren 3ko Agindua.

AZKEN XEDAPENA

Lehenengoa.— Industria Administrazioan eskumena duen zuzendariari ahalmena ematen zaio agindu hau eta aplikatu beharreko araudia interpretatzerakoan sortzen diren zalantzak erabakitzeko, baita agindu hau garatzeko beharrezko diren xedapenak emateko ere.

Bigarrena.— Agindu hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da indarrean. Legezko ondorioak, dena den, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 5a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

I. ERANSKINA

ALDIZKAKO AZTERKETENGATIKO TARIFAK

Ibilgailu mota	Tarifa	
	Prezioa €	Prezioa BEZa (% 18) barne. €
1. Kategoriako ibilgailuak (Motozikletak, ziklomotorrak eta motordun ibilgailuak, gehienez hiru gurpilekoak)	18,52	21,85
2. Kategoriako ibilgailuak (Automobilak, koadrizikloak eta 3.500 kg-ra arteko BGMa duten salgaien ibilgailuak)	34,24	40,40
3. Kategoriako ibilgailuak (3.500 kg-tik gorako BGMa duten salgaien ibilgailuak, eta pertsonak garraiatzeko diren ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiagokoak)	50,55	59,65
Atoiak eta erdiatoiak	29,28	34,55
Traktoreak eta nekazaritzako makinak	29,28	34,55

II. ERANSKINA

ERREFORMEN TARIFAK

Erreforma garrantzitsuen azterketa teknikoetan aplikatu behar diren tarifak jasotzen dira eranskin honetan. Tarifa horiei, gainera, beste tarifa bat aplikatuko zaie III. eranskineko erreformaren izapideak egiteagatik.

Erreforma egitean ibilgailuaren masa edo ardatzen banaketa aldatzen bada, azterketa teknikoagatik tarifa aparte, pisatze-tarifa ere ezarriko da.

Erreforma bat egiteko proiektua aurkeztu behar denean, proiektua ikuskatzeagatik tarifa ere ezarriko da.

Erreformak taximetroaren egiaztapen metrologikoa dakarrenean, egiaztapenari dagokion tarifa ere ezarriko da.

Ibilgailu mota	1. mota		2. mota		3. mota	
	Prezioa €	Prezioa BEZa barne (% 18). €	Prezioa €	Prezioa BEZa barne (% 18). €	Prezioa €	Prezioa BEZa barne (% 18). €
1. Kategoriako ibilgailuak (Motozikletak, ziklomotorrak eta motordun ibilgailuak, gehienez hiru gurpilekoak)	18,52	21,85	9,24	10,90	4,62	5,45
2. Kategoriako ibilgailuak (Automobilak, koadrizikloak eta 3.500 kg-ra arteko BGMa duten salgaien ibilgailuak)	34,24	40,40	17,16	20,25	8,56	10,10
3. Kategoriako ibilgailuak (3.500 kg-tik gorako BGMa duten salgaien ibilgailuak, eta pertsonak garraiatzeko diren ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiagokoak)	50,55	59,65	25,25	29,80	12,63	14,90
Atoiak eta erdiatoiak	29,28	34,55	14,62	17,25	7,29	8,60
Traktoreak eta nekazaritzako makinak	29,28	34,55	14,62	17,25	7,29	8,60
Proiektua ikuskatzea	14,03	16,55	14,03	16,55	14,03	16,55

III. ERANSKINA

BESTE AZTERKETA BATZUEN TARIFAK

Azterketa mota	Tarifa	
	Prezioa €	Prezioa BEZa (% 18) barne. €
Salgai arriskutsuen edo galkorren garraio-ziurtagiriaren luzapena	2. MOTA + IZAPIDEAK	
Izapidea	9,70	11,45
Ibilgailuen pisaldia	12,42	14,65
Taximetroa egiaztatzea	19,87	23,45
Matrikulatu aurreko azterketa	28,05	33,10
Adin txikikoen eta eskola-garraioaren azterketa bereziak	20,51	24,20
Zatikako azterketa	3. MOTA 1. motako tarifa gehienekoa izanik	
Joan-etorri gastuak (km bakoitzeko)	0,51	0,60
Joan-etorriagatiko gutxieneko fakturazioa	10,30	12,15

OHARRAK

1.- Matrikulatu aurreko azterketagatiko tarifari, aldizkako azterketagatiko tarifa gehituko zaio, ibilgailuaren kategoriaren arabera, eta, kasuan kasu, erreformak erregularizatzearen eta pisatzearen izapideena ere bai.

2.- Eskola-garraioaren azterketa berezia ibilgailu astunei aplikatuko zaie, eta aldizkako azterketako tarifari gehituko zaio.

3.- Eskola-garraioko altako erreformetan eskola-garraioaren tarifa bera aplikatuko da, erreformako tarifari gehituta.

4.- Ibilgailu arinei, gehienetan taxiei, ez zaie aplikatuko eskola-garraioaren tarifa kasu hauetan: taxi bidezko eskola-garraioaren azterketa bereziak badira eta horiek ibilgailuren aldizkoarekin batera egiten badira; eskola-garraioari dagokiona bakarrik egiten bada aplikatu egin beharko da.